

## Test galderak

1 – Zer da FARMAKO GENERIKOA:

- a.- Oraindik ikertzen ari den farmakoa eta behin betiko izena ez duena
- b.- Nazioarteko erakundeek efektu terapeutikoa duen substantzia kimiko bakoitzari ematen dioten izena
- c.- Gizakietan oraindik erabili ezin daitekeen printzipio eraginkorrari ematen zaion izena
- d.- “Merkataritza-izena”-ren sinonimoa

2. – ASKATZE ERALDATUA duten forma galenikoen ezaugarria zein da:

- a.- Gauzez hartu behar direla
- b.- Uretan disolbatu behar direla
- c.- Ez direla barautan hartu behar
- d.- Ez direla txikitu behar

3. – Honako farmakoen artean zein da ANTIKOAGULATZAILEA?:

- a.- Enoxaparina
- b.- Azenokumarol
- c.- Heparina sodikoa
- d.- Aurreko farmako guztiak antikoagulatzailerak dira

4. Zein da FENTANILOaren farmako ANTAGONISTA?:

- a.- Meperidina
- b.- Metadona
- c.- Naloxona
- d.- Flumazeniloa

5.- Zein EZ da MORFINAren eragin desiragaitza?

- a.- Digestio-odoljarria
- b.- Okak
- c.- Idorreria
- d.- Hipotentsio arteriala

6.- Honako hauen artean zein EZ da AINEa:

- a.- Piroxikam
- b.- Meperidina
- c.- Indometazina
- d.- Naproxenoa

7. – BIGUANIDEEI buruz zein da GEZURRA:

- a.- Diabetes mellitus 2 tratatzeko erabiltzen dira
- b.- Obesitatea guten gaixoetan gomendatzen dira
- c.- Sulfonilureekin elkartu daitezke
- d.- Ezin dira intsulinarekin elkartu

8. – Gaixo bat BETALAKTAMIKOei ALERGIKOA bada, honako antibiotikoen artean zein aukeratuko zenuke?:

- a.- Amoxizilina
- b.- Piperazilina
- c.- Zefuroxima
- d.- Gentamizina

9. – SALMETEROLA.....da:

- a.- ...betablokeatzailea...
- b.- ...kaltzio-antagonista...
- c.- ...bronkio-zabaltzailea...
- d.- ...inhalatzeko kortikoidea...

10. – AZENOKUMAROLA hartzen duen gaixo baten INRa 8 bada, zein da GEZURRA:

- a.- Bere INRa baxua dela eta tratamenduak ez daukala eraginkortasunik
- b.- Bere INRa altua dela eta odoljariora izateko arriskuan dagoela
- c.- Denboraldi baterako farmakoa hartzeari utzi beharko diola
- d.- Azenokumarola INRaren bidez kontrolatzen dela

11.- Honako farmakoen artean zein erabiltzen da ULTZERA PEPTIKOaren tratamendurako:

- a.- Kotrimoxazol
- b.- Salmeterol
- c.- Omeprazol
- d.- Aurreko farmako guztiak

12. – Intsulina ERREGULARrari buruz, zein da EGIAZKOA:

- a.- Intsulina ertaina dela
- b.- Intsulina Lispro-aren aldean, bere eragina (intsulina erregularraren eragina) motelago hasten dela
- c.- Ezin dela benabarneko bidez eman
- d.- Aurreko guztia egia da

13. – Honako aukeren artean zein EZ da egia PARKINSONen gaixotasunaren tratamenduari buruz:

- a.- Eragin dopaminergikoa bultzatzea bilatzen da
- b.- Medikamentuak hartzerako orduan ezinbestekoa da ordutegi finkoa eta zehatza jarraitzea
- c.- Dosiak pixkanaka-pixkanaka aldatu behar dira
- d.- Kortikoideak eraginkorrak dira gaixotasunaren lehenengo fasean

14. – Zein da KRISIALDI konbultsibo toniko-kloniko orokorra geldiarazteko tratamendua:

- a.- Fenobarbital
- b.- Karbamazepina
- c.- Diazepam
- d.- Aurreko guztiak erabili daitezke

15. – Zein da BENZODIAZEPINen eraginak antagonizatzen dituen farmakoa:

- a.- Naloxona
- b.- Haloperidol
- c.- Flurazepam
- d.- Flumazenil

16. Erabilera luzerako, ze LAXANTE da indikatuena?:

- a.- BisakodiloA
- b.- Senosidoak
- c.- Laktulosa
- d.- Guztiak dira gomendagarriak neurri berean

17. – Glukokortikoideei buruz, zein EZ da EGIA?

- a.- Hodi-zabalkuntza eragiten dute
- b.- Antiinflamatorio indartsuak dira
- c.- Hipergluzemia eragin dezakete
- d.- Immunitate-sistema ahuldu dezakete

18. – AMLODIPINOari buruz, zein da GEZURRA:

- a.- Hodi-zabalkuntza eragiten duela
- b.- Ionotropo positiboa dela
- c.- Hipertentsio arterialaren tratamendurako indikatua dagoela
- d.- Kardiopatia iskemikoaren tratamendurako indikatua dagoela

19. – Honako farmakoen artean, zein EZ da ANTIARRITMIKOA:

- a.- Amiodarona
- b.- Enalapril
- c.- Digoxina
- d.- Prokainamida

20. – ALOPURINOLari buruz, zein da EGIAZKOA:

- a.- Hipertentsio arteriala tratatzeko erabiltzen dela
- b.- Lasaigarri nagusia dela
- c.- Antidepresiboa dela
- d.- Hiperurizemia tratatzeko erabilgarria dela

21.- Zein da prolaktinaren ekoizpena INHIBITZEN duen farmakoa?:

- a.- Leuprorelina
- b.- Somatostatina
- c.- Klomifenoa
- d.- Bromokriptina

22.- Beta-blokeatzaileak, noiz EZIN dira erabili?

- a.- Hipertentsio arteriala dagoenean
- b.- Buruko minen eta migrainen tratamenduan
- c.- Asma bronkialean
- d.- Aurreko kasu guztietan ezin dira erabili

23.- Zein da HIPERTIROIDISMOA tratatzeko erabiltzen den farmakoa:

- a.- Klotrimoxazol
- b.- Lebotiroxina
- c.- Karbimazol
- d.- Karbamazepina

24.- Honako farmakoen artean zeinek EZ du baso-zabalkuntza koronarioa eragiten?:

- a.- Kaptopril
- b.- Nitroglicerina
- c.- Amlodipino
- d.- Isosorbide mononitratoa

25.- KAPTOPRILa/ak.....:

- a.- ...hodi-zabalkuntza periferikoa eragiten du
- b.- ...ez da farmako antianginosoa
- c.- ...bihotz-gutxiegitasunean erabiltzen da
- d.- Aurreko erantzun guztiak egiazkoak dira

26.- Ringer-laktato seruma/k:

- a.- Soluzio kristaloidea da
- b.- Hipobolemietan erabiltzen da
- c.- Ioiak eta laktato dauzka bere osaeran
- d.- Aurreko aukera guztiak egia dira

27.- BLEOMIZINA .....da:

- a.- ...progestagenoa...
- b.- ...zitostatikoa...
- c.- ...immunodepresorea...
- d.- ...antibitamina K...

28.- TUBERKULOSIAren profilaxian zein da erabiltzen den farmakoa?:

- a.- Isoniazida
- b.- Rifanpizina
- c.- Etanbutol
- d.- Pirazinamida

29.- Honako farmakoen artean zein EZ da ANTIKONBULTSIBATZAILEA:

- a.- Difenilhidantoina
- b.- Gabapentina
- c.- Fluoxetina
- d.- Azido balproikoa

30.- AKARBOSA/K:

- a.- Lipidoen digestioa atzeratzen du
- b.- Hipogluzemia eragin dezake
- c.- Diabetes mellitusaren tratamenduan osagarri moduan erabiltzen da
- d.- Aurreko guztiak egiazkoak dira

31.- METOKLOPRAMIDA/K:

- a.- Urdail-husturaren abiadura bizkortzen du
- b.- Urdail-husturaren abiadura jaisten du
- c.- Mukosa gastrikoaren babeslea da
- d.- Beherako kontrakoa da

32.- Aukeratu ATROPINAREN eragin NAGUSIA:

- a.- Bihotz-maiztasunaren igoera
- b.- Beherakoak
- c.- Bronkio-uzkurdura
- d.- Izerdia

33.- AINEen eragin desiragaitz ohikoena, zein da?

- a.- Hepatotoxikotasuna
- b.- Gastroerosioa
- c.- Daradara
- d.- Edemak

34.- Aukeratu FUROSEMIDAREN eragin desiragaitz ohikoena:

- a.- Azido urikoaren mailen jaitsiera
- b.- Hipertentsio arteriala
- c.- Hiperbolemia
- d.- Aurreko aukera guztiak oker daude

35.- Bi farmako AGONISTA...:

- a.- Eragin bera sortzen dute
- b.- Kontrako eragina sortzen dute
- c.- Aldi berean ematerakoan bere eragina areagotzen da
- d.- Bide beretik kanporatzen dira

36.- Nola deitzen da farmako baten dosia igotzearen beharra eragin bera lortzeko?:

- a.- Ohikotasuna
- b.- Pilaketa
- c.- Jasankortasuna
- d.- Menpekotasuna

37.- FLUTIKASONA, zer da?:

- a.- Beta-2 hartzaileen estimulatzailea, inhalatua
- b.- Kortikoide inhalatua
- c.- Antikolinergiko inhalatua
- d.- Teofilina bat

38.- ZITOSTATIKOek eragindako APLASIAN, zein EZ da nahitaezkoa?:

- a.- Pazientearen isolamendua
- b.- Odoljarioaren agerpena behatzea
- c.- Gluzemia kontrolatzea
- d.- Sukarra behatzea

39.- Honako bideak erabiltzen direnean, zeinekin agertzen dira azkarren eragin desiragaitzak?:

- a.- Benabarneko bidearekin
- b.- Ondesteko bidearekin
- c.- Aho bidearekin
- d.- Mihipeko bidearekin

40.- Ze sintoma agertzen da opiazeoek eragindako abtinentzia-sindromean?:

- a.- Idorreria
- b.- Beherakoak
- c.- Bradikardia
- d.- Logalea

41. PAROXETINA/ak.....da/dauka:
- a.- Antidepressibo triziklikoa da
  - b.- Berehalako eragin antidepressiboa dauka
  - c.- Noradrenalinaren errekaptazioaren inhibitzailea da
  - d.- Eragin antidepressiboa zein antsiolitikoa dauka
42. Zein da hartzaile ALFA adrenergikoen BLOKEATZAILEA?:
- a.- Dobutamina
  - b.- Doxazosina
  - c.- Propanolol
  - d.- Bat ere ez
43. IMMUNODEPRESOREen eragin desiragaitz GARRANTZITSUENA....da/dira:
- a.- Anemia
  - b.- Infekzio oportunistak
  - c.- Tronbopenia
  - d.- Alopezia
44. Ze egoera klinikotan erabiltzen dira PLASMAREN ZABALTZAILEAK, batez ere?:
- a.- Krisialdi hipertentsiboetan
  - b.- Krisialdi konbultsiboetan
  - c.- Diabetes Mellitus-ean
  - d.- Hipotentsio arteriala hipobolemiarekin
45. Honako farmakoen artean, zeinek jaisten ditu KOLESTEROLAREN odol-mailak?:
- a.- Somatostatina
  - b.- Sinbastatina
  - c.- Koltzizina
  - d.- Torasemida